Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero 402

Uztailak 15, 2021

TERESA ERRANDONEA · BIZITZA OSOKO LANA

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Irungo turismo bulegoa
5 Udako kultur agenda
6 Felipe Cambón
7 Oiassotik Irunera
8 Kirolak: Teresa Errandonea
9 Kirolak: Leka Enea
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Maitena Paillet
14 iGazte
15 Agenda

Argazkia: Adur Amilibia, Bidasoa Atletiko Taldea

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko uztailaren 24an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak momentu hartan Irungo hiriak bizi zuen errealitatea uzten du agerian. Aldizkariko lehen artikuluan Irun eta Hondarribia lotzen dituen tranbian jendea edonola igotzen dela salatzen du E.R. kolaboratzaileak. "Lagun artea" titulua daraman olerkiaren aurretik, jarraian Errenteriako aldizkari batetik hartutako poema irakurriko dutela azaltzen zaie irakurleei. Ondoren, Yole aldizkariko olerkigile ohikoaren azalpen testua irakur daiteke. Testuan aurreko igandeko zenbakian argitaratutako poemen zergatia eta testuingurua azaltzen ditu Yolek.

Kirol kronikan, berriz, futbol denboraldiaren amaiera aipatzen da. Artikuluan Real Union klubeko lehen taldeak amaitu berri den denboraldian jokatutako partidu guztien emaitzak biltzen dira. Hurrengo idatzian uda osoan zehar Kasinoan antolatuko diren dantzaldi eta kontzertuen berri ematen da, ekitaldi horietako etekinaren parte bat hiriko gaixoei laguntzeko erabiliko direla azaltzeaz gainera. Re-la-mi-dok idatzitako Udal Musika Bandak gauetan eskainitako kontzertuen inguruko gogoeta irakur daiteke jarraian. Hondarribiko atalean Miramar jauregiari eta Santiago egunean egitekoa den dantzaldiari buruzko artikuluak argitaratzen dira. Bigarren orrialdearen amaieran eta hirugarrenaren hasieran, Tuberkulosiaren aurkako kontsultategiari eta haurrentzako udalekuei laguntzeko tonbolarako bildutako gauzen eta opari horien emaileen izenak irakur daitezke.

"Notas Municipales" atalak azken udal bilkuran hartutako erabaki garrantzitsuak argitaratzen ditu. "Ecos de sociedad" atalean ordea, hiriko pertsona aberats eta esanguratsuek azkenaldian egindako bidaiak zerrendatzen dira. "Noticias" izeneko berri laburren atalaren ostean, "El Bidasoa" aldizkariaren 308. zenbakia publizitatez betetako orrialdearekin amaitzen da.

Argazkiak:

38528: Animaliek tiraka daramaten tranbia, Colon pasealekutik Merkatu plazara sartzen. Lehen planoan Echeandia etxea ikus daiteke, aurrerago Palace Hotela.

57705: Palace hoteleko jatetxea (XX. mendearen hasiera).

1170: Udal Musika Banda, Regino Arizek zuzendua Aquilino jauregiaren aurrean (1902)

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

ACUBI elkarteak udako merkealdirako aholkuak gogoratu ditu

Urtero bezala, jada eskualdeko merkataritza-establezimenduetan eta saltoki handietako erakusleihoetan merkealdia iragartzen duten kartelak ageri dira. Horregatik, ACUBIk, Bidasoako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen elkarteak, kontsumitzaileek merkealdian erosteko dituzten eskubideei buruzko informazioa zabaldu du, hainbat gomendiorekin batera.

ACUBI elkarteak gogoratu duenez, beherapena duten artikuluak salmenta horren aurretik finkatutakoa baino merkeago eskaintzen dira. Horretarako, beherapenaren prezioa finkatzeko orduan, ohiko prezioarekin batera beheratutako prezioa erakutsi behar da, ehunekotan edo zifratan. Administrazioak, ofizioz edo erosleak edo kontsumitzaile-elkarte batek eskatuta, ohikotzat jotako prezioaren benetakotasuna frogatzeko eskatu ahal izango du. Merkealdian eskainitako artikuluek aurrez ohiko salmenta-eskaintzan sartuta egon behar izan dute eta, horrekin batera, debekatuta dago hondatutako artikuluak eskaintzea, bai eta merkealdirako berariaz erositakoak ere. Merkealdiko salmenta eta iraupena kanpotik ikusteko moduan jarri behar da, baita establezimendua itxita dagoenean ere.

Bidasoako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen elkarteak azpimarratu duenez, merkealdian erositako produktuak itzuli egin daitezke, baldin eta establezimenduak urteko gainerako orduetan, oro har, artikuluen itzulketak onartzen baditu. Erositako artikulua akastuna bada (eta saldoa ez bada), kontsumitzaileak produktuaren itzulera eskatzeko aukera izango du, nahiz eta establezimendu horrek salmenten politika orokorrean itzulketarik ez onartu. Gainera, bezeroak erosketa ordaintzeko modua aukeratzeko eskubidea du; establezimenduak normalean onartzen badu txartelarekin ordaintzea, egun horietan ezin du ordainketa modu hori ukatu. Osasun krisia dela eta, eskudirutan ordaindu beharrean, txartel bidezko ordainketa egitea orokortu da. Beraz, beheratutako artikuluek behar bezala markatuta eta beherapenetan ez dauden artikuluetatik bereizita egon beharko dute, nahasketarik gerta ez dadin.

Gomendioak

ACUBI elkarteak merkealdian modu koherente eta arduratsuan erosteko aholku hauek jarraitzea gomendatzen du. Alderatu produktu beraren edo antzekoren hainbat establezimendutako prezioak. Egiaztatu produktuen kalitatea, saldoak ez direla edo akatsik ez dutela. Produktua erosi aurretik, establezimenduaren itzulketen politikari buruzko informazioa eskatzea aholkatzen da. Eskatu beti erosketaren egiaztagiria eta berme-dokumentuaren zigilua.

Internet bidez egindako erosketen kasuan, atzera egiteko eskubidea dago, eta horrek, kontratua 14 egun naturaleko epean bertan behera uzteko aukera ematen du, produktua jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, inolako arrazoirik argudiatu beharrik gabe eta zigorrik gabe. Bermeak eta erreklamazioak merkealdi garaitik kanpokoak bezalakoak izan behar dute. Era berean, establezimendu eta saltokietako kartelek eta publizitateak beheratutako produktuak "merkealdi" gisa iragarri behar dituzte, eta ez dituzte termino nahasiak erabili behar, hala nola "saldoak" edo "likidazioa" bezalakoak. Gainera, publizitatea loteslea denez, hura betetzea eska daiteke, eta, beraz, produktuaren publizitatea eta haren ezaugarriak, jarraibideak eta katalogo komertzialak gordetzea gomendatzen da. Edozein irregulartasunen aurrean erreklamazio-orriak eskatu behar dira. Kreditu-txartelen erabilera arduratsua egitea gomendatzen da. Pentsatu behar da, kobrantza hori banku-kontuan berehala kargatuko ez bada ere, lehenago edo geroago iritsiko dela, eta, beraz, kontsumitzaile bakoitzak ondo pentsatu behar duela zenbaterainoko gastua har dezakeen bere gain.

Osasun-gomendioak

Establezimenduak ezarritako edukiera-muga pazientziaz errespetatu beharko da, Covid-19aren kutsatzeak saihestearren hartutako neurrietako bat baita. Era berean, probageletara sartzeko langileen jarraibideak errespetatu behar dira, bai eta probageletan sartzeko gehieneko jantzi kopuruari dagozkionak ere. Ez sartu segurtasun-neurriak errespetatzen ez diren establezimenduetan, ezta jendetza pilatzen den establezimenduetan ere, barruan zein kanpoan. Erabili gel hidroalkoholikoa establezimenduaren sarreran. Azkenik, ez ahaztu maskara erabili behar dela barruko espazioetan, bai eta kanpoko espazioetan ere, pertsonen arteko 1,5 m-ko distantzia errespetatu ezin denean.

San Martzial Txingudiko igerilekuen denboraldia hasi da

San Martzial Txingudiko Udal Kirolguneko igerilekuak uztailaren 7an ireki ziren. Egun horretatik aurrera instalazioa osatzen duten teniseko lau pista eta padeleko hiru zelairekin batera igerilekuak ere erabili daitezke.

Pandemiagatik ezarritako neurrietara egokituta ireki dira berriz ere igerilekuak. Horrela bi txanda egongo dira, bat goizeko 11:00etatik 15:15etara eta bestea arratsaldez 16:15etatik 20:30etara. Instalazioen gehienezko edukiera 175 pertsonakoa izango da eta aurtengo prezioak honakoak: helduek 2,20€ ordainduko dute eta haurrek, hau da, 4 eta 17 urte artekoek, 1,80€.

Instalazioan sartzeko aurrez hitzordua hartu beharko da nahi den egun eta txandarako eta www.irun.org/piscinas web atariaren bitartez egin daiteke. Behin hitzordua hartuta, sarrera instalazioan bertan ordainduko da, ahal bada kreditu txartelarekin, eta, hala egin ezin bada, diru kopuru zehatzarekin, erreserba egiterakoan agertuko baita zein den ordaindu beharreko zenbatekoa. Aniztasun funtzionala duten pertsonek izan ezik, aurtengo denboraldian ere ezingo dira aldagelak eta armairuak erabili.

Edukiera 175 pertsonakoa izango denez, eta instalazioa ahalik eta jende gehienak erabiltzeko aukera izan dezan, ezin izango da instalazioaren erreserbarik egin aldez aurretik egindako erreserba kontsumitzen ez den bitartean. Era berean, joan ezin dutenek daukaten erreserba baliogabetzen ez badute, 3 egun igaro arte ezin izango dute berriz erreserbatu.

Segurtasun distantziak mantentzearren, berdegunean puntu batzuk markatu dira. Instalaziora sartzen direnak puntu horien inguruan jarri beharko dira, segurtasun distantziak mantentzeko balio dute eta. Azkenik, nola ez, maskara erabiltzeari buruz indarrean dagoen osasun-araudia bete beharko da.

Irunbusek berriro ere eskainiko du San Martzialeko igerilekuetara joateko zerbitzua. Ordu erdiro abiatuko da L-3 autobusa Fermin Calbeton kaletik, goizeko 10:30etan hasita. Igerilekuetara doan azken zerbitzua 21:00etan irtengo da Fermin Calbeton kaletik.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irungo turismo bulegoa prest dago udan bisitarien eta irundarren kontsultei erantzuteko

Irungo turismo bulegoa Luis Mariano kaleko 3. zenbakian kokatuta dago. Iaz, ezohiko urtea izan arren, 2.800 bisitari inguru izan zituen bulegoak. Ikusteko dago pandemiak baldintzatutako bigarren urte honetan berriro ere tokiko turismoa gailenduko ote den. Iñaki Cacheiro Irungo turismo-bulegoko turismo-informatzaileak urtero hirira hurbiltzen diren bisitarien profila eta interesak deskribatu ditu.

Aurreko urteko uda nahiko ezohikoa izan zen. Nola lan egin zenuten zuek?
Joan den uda oso ezohikoa izan zen, kanpoko jende asko jasotzera ohituta gaudelako, adibidez, Frantzia, Alemania eta Italiatik etorritako erromes asko. Joan den udan, batez ere bertako turismoa izan genuen, Gipuzkoatik etorritako turista asko. Horren alde, hainbat ekimen egin ziren tokiko turismoa sustatzeko asmoz, hala nola Gipuzkoako Pasaportea, onarpen handia izan zuena. Pasaporte mordoa ekarri zituzten, bukatu egin ziren eta berriro eskatu behar izan genituen. Pasaportea Gipuzkoa osoan jarduerak egiteko ideiak ematen zituen ekimena izan zen.

Aurreko urteekin alderatuta bisitari kopuruan alde handia nabaritu zenuten?
Noski, aurreko urteetako zifrekin alderatuta bisitarien kopurua murriztu egin zela ikusi genuen. Dena den, beste urte batzuekin alderatuta, tokiko bisitari gehiago hurbildu ziren eta horrek kopurua orekatzen lagundu zuen.

Zer aurreikuspen dituzue aurtengo udarako?
Nabari da, pixkanaka, turistak eta erromesak berriro etortzen direla. Oro har, Europako turistak dira, batez ere, inguruko herrialdeetakoak, Frantziakoak adibidez. Ez dira aurreko urteetakoekin alderatu daitezkeen zifrak; beste eskualde batzuetako turismoa ere ez da aurreko denboraldietan bezalakoa. Hala ere, turistak pixkanaka iristen hasi dira.

Iaz bereziki nabarmendu zen bertako bisitarien kopurua?
Jendeak irteteko eta gauzak ikusteko gogo handia zuen. Horrela, beste batzuetan agian bisitatzea pentsatu ez zuten lekuak ezagutzeko aukera gisa bizi izan zuten. Inguruko leku interesgarriak ezagutu nahi zituzten.

Irungo kasuan, zein izaten da turista gehien biltzen dituen garaia?
Toki gehienetan bezala, turisten etorrera udan nabaritzen da. Batez ere, uztailaren bigarren hamabostalditik aurrera eta abuztuaren amaierara arte. Nondik datoz bisitari horiek?
Oro har, estatuko turismoa nagusi dela esan dezakegu. Madrildik edo Bartzelonatik etorritako jende askok bisitatzen gaitu. Frantziatik etorritako turisten etorrera ere oso nabaria da. Turista frantsesak merkataritza, denda eta gastronomiaren bila etortzen dira batez ere.

Zer interesatzen zaie gehien Irunera datozen turistei?
Turistek, Irunera iristen direnean, orokorrean galdetzen dute zer ikus dezaketen. Askok erromatar museoa, Plaiaundiko padurak edo Aiako Harria Parke Naturalaren berri dute bulegora iristen direnerako. Gainera, turista askok Hondarribiari eta Donostiari buruz galdetzen digute.

Irun itzalean gera daiteke inguruko hirien erruz?
Itzalean baino gehiago esango nuke hiri guztiek inguruko hirien tiraldia aprobetxatzen dutela. Azken batean, ezagutzera emateko modu bat da. Adibidez, Hondarribira joaten den jendea askotan Irundik pasatzen da edo Donostiara joaten den jendea batzuetan Irunera hurbiltzen da. Elkarreraginean oinarritutako harremana da. Beste askok Irunen hartzen dute ostatu inguru hurbileko hiriak bisitatzeko. Gainera, Irun puntu estrategikoa izan daiteke Iparraldea ezagutu nahi duen jendearentzat. Azkenean, harreman horrek denoi egiten digu mesede.

Irun mugatik gertu egoteak bisitariak erakartzen laguntzen du?
Bai, hori da. Alde batetik, merkataritzak sortzen duen erakarpena dela eta. Bestalde, Done Jakue bidearen hasierako hiria da. Hori dela eta, Irun hiri erakargarria da mugaren beste aldeko bisitarientzat.

Bada hiria ezagutu ostean turistak harritzen dituen zerbait?
Alde batetik, Irun berdeak ematen die atentzioa. Ez dute espero padurak edo parke natural bat hain gertu izatea. Izan ere, jende askok Irun merkataritza edo industria gune batekin lotzen du.

Zer informazio mota eskaintzen diezue turismo bulegotik?
Azkenaldian naturari buruzko informazio asko eskatzen dute. Hori dela eta, Aiako Harrietako bidezidorren liburuxkak oso harrera ona du.

Turismo bulegoak zerbitzu interesgarriak eskaintzen ditu Irungo herritarrentzat?
Hiriko jendea, askotan, Irungo turismo bulegora dator Amaia Kultur Zentroko sarrerak erostera edo eskura dituzten kultur jarduera guztiei buruzko informazioa jasotzera. Gu arduratzen gara Amaia aretoan antolatzen diren ikuskizunetako sarrera eta gonbidapen guztiak saltzeaz edo banatzeaz. Hori urte osoan egiten dugun lanaren zati garrantzitsu bat da.

Zer gomendatzen duzu uda honetan bisitatzea?
Irunen egiteko gomendio interesgarri bat Oiasso museotik eskaintzen duten Zirkuitu erromatarra izan daiteke. Horrez gain, Irugurutzetako labeak eta meategiak bisitatzeko ibilaldi gidatua eskainiko dute. Museotik bertatik eskaintzen diren ibilaldi gidatuak dira, eta uste dut Irungo jendearentzat bi aukera interesgarri izan daitezkeela, askotan ezagutzen ez dituztenak.

Zein da turismo bulegoaren ordutegia uda honetarako?
Irungo turismo bulegoa astelehenetik larunbatera 10:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:30era egongo da zabalik. Igandeetan, 10:00etatik 14:00etara. Ordutegi hori izango du uda osoan zehar.

ESTUDIO FOTOGRAFICO
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Udalak jaietako aurrekontua erabili du udako kultur programazioa indartzeko

Juncal Eizaguirre Kulturako ordezkariak 2021eko udako kultur agenda osoaren berri eman du. Harekin batera, datozen asteetarako aurreikusitako programaren protagonistetako batzuk egon dira, hala nola, Julio Bravo eta Carlos Malles musikariak eta Cristina Juaniz artista.

Iaz bezala, berriz ere egungo egoerara egokitu du Kultura arloak udako agenda. Juncal Eizaguirrek azaldu duenez, "Kulturaren aldeko apustua inoiz baino beharrezkoagoa da gaur egun, eta, horregatik, aurten baliabideak ia-ia bikoiztu egin dira". Kultura ordezkariaren hitzetan: "Hilabete hauetan egiten ditugun beste ekintza batzuetan bezala, helburua da sektorean lan egiten duten Irungo profesionalei laguntzea eta, aldi berean, herritarrei proposamen bat eskaintzea, hiriko udaz gozatzeko".

Zifretan, 30 jarduerek osatuko dute udako kultur agenda: 8 antzerki- eta dantza-emanaldi, aire zabaleko 5 zinema-proiekzio, 10 musika-emanaldi, 2 Girabira saio (Girabiraren denboraldiak urrira arte iraungo du: beste bi jardunaldi.), 2 erakusketa ("Denboraren haria", Ainara Oskozena, Menchu Galen, eta Susana Ferreiraren, Eduardo Larrasaren eta Aiert Alonsoren lanen bilduma, eta "18cm" erakusketa Amaia KZn); eta hainbat ekitaldi, hala nola Kontenporanea arte-topaketa eta bildumazaletasunaren azoka. Gainera, uztailaren 8tik 11rako asteburuan Dies Oiassonis jaialdi erromatarraren txanda izan zen eta jaialdi hori ere udako agendako kultur ekimenen zerrendan sartu da.

Juncal Eizaguirrek programazio honetarako jarri den aurrekontua nabarmendu du: "Irunen kulturarekiko sentsibilitatea dugu. Badakigu egoera honek kalte egin diola, eta, horregatik, nahiz eta ez izan jairik, dena emango dugu hilabete hauetan. Jaietako aurrekontua ez da galdu; are gehiago, aparteko kultur programazio indartsu baterako erabiliko dugu, hainbat garaitan, hala nola udan, non aurrekontua iazkoa halako bi izango den".

Irundik irundarrentzako
Agendan espresuki adierazten direnak izan ezik, jarduera guztiak, joan den urtean bezala, Junkaleko plazatxoko agertokian egingo dira. Berrikuntza gisa, barrutia olana batzuekin mugatuko da, eta olana horiek, aldi berean, bertako zazpi artistek egindako irudi batzuk erakusteko ere erabiliko dira. Maialen Arocenak koordinaturik (dagoeneko Kultura KM0 ekimenean parte hartu zuen), artista bakoitzak bere marrazkiak egin ditu, gai jakin batean oinarrituta, eta denek lotura dute eremu horretan egingo diren kultur jarduerekin (musika, dantza, antzerkia, zirkua, zinea, ikus-entzuleak eta uda Irunen). Hauek dira artistak: Cristina Juaniz, Ramón Álvarez, Nerea Bermejo, Andrea Villamor, Aitor Espié, Xabi Illaregui eta Maialen Arocena.

> **"Kulturaren aldeko apustua inoiz baino beharrezkoagoa da gaur egun"**
>
> Juncal Eizaguirre, Kultura ordezkaria

Barruti horretan, pandemia dela eta, jarduera-protokolo bat beteko da, eta jarrera- eta higiene-neurri batzuk hartuko dira. Horrela, bada, ikusleek maskara erabili beharko dute nahitaez, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere; barrutia mugatuta egongo da, eta edukiera 230 ikusle ingurura murriztuko da; pertsonen arteko distantzia gorde beharko da; gel hidroalkoholikoa egongo da eta aulkiak desinfektatu egingo dira, ateak ireki aurretik. Gainera, toki bat baino gehiago izango ditu barrutiak sartzeko eta irteteko. Hamabi langilek osatuko dute azaldutako neurriak bermatzeko eta jarduerak prestatzeko lanetan jardungo duen giza taldea.

Jardueren agenda gehiago ezagutarazteko, aurtengo udan erabiliko diren euskarrien artean nabarmenenak aipa ditzakegu: udal-aldizkariaren ale berezia eta Zabaltza plazan jarriko den totem handi bat, udako jarduera guztiak inprimatuta izango dituena. Jarduera-programa xehetasun osoz kontsultatu ahal izango da udalaren webgunean. Honako hau da:

Uztailean
15ean, osteguna, 20:00etan: Zanguango Teatro konpainiak "Aquí va a pasar algo" antzezlana aurkeztuko du. Gaztelaniaz (75 min.).

16an, ostirala, 20:00etan: Iñaki Dieguez hirukotearen kontzertua.

17an, larunbata, 18:00etan: Girabira, Alaia Txoko parkean.

22an, osteguna, 20:00etan: Trapuzaharra antzerki-konpainiak "Turistreando" antzezlana aurkeztuko du. 60 min.

23 eta 24an: Kontenporanea V. edizioa.

23an, ostirala, 20:00etan: Travellin' brothers-en kontzertua.

24an, larunbata, 12:00etan: Luciano Pompilioren emanaldia Oiasso Museoan, Hondarribiko Nazioarteko XIX. Gitarra Jaialdiaren barruan.

24an, larunbata, 22:00etan: Zinea aire zabalean: "Aladdin" filma, Guy Ritchie-rena (2019). 128 min.

29an, osteguna, 22:00etan: Oscar Terol aktoreak "¡Por comentarlo!" ikuskizuna ekarriko du Irunera. 75 min.

30ean, ostirala, 20:00etan: Ainhoa Larrañagaren kontzertua.

Abuztuan:
5ean, osteguna, 20:00etan: Ipso Facto konpainiak "Cha Cha Cha" ikuskizuna aurkeztuko du.

6an, ostirala, 19:00etan: Girabira, Gain Gainean parkean.
6an, ostirala, 20:00etan: Iñaki Palacios eta Taldearen "Harria" kontzertua.

7an, larunbata, 22:00etan: Zinea aire zabalean: "El rey León" filma, Jon Faureau-rena (2019). 118 min.
8an, igandea, 20:00etan: Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

12an, osteguna, 20:00etan: "Mikra" zine akrobatikoaren ikuskizuna, Berdinki Zirkusen eskutik. 40 min.

13an, ostirala, 20:00etan: Los Diagnósticos taldearen kontzertua.

14an, larunbata, 10:00etan: Bildumazaletasunaren Azoka, Zabaltza plazan.

14an, larunbata, 22:00etan: Zinea aire zabalean: "Bohemian Rhapsody" filma, Bryan Singer-ena (2018). 134 min.

19an, osteguna, 20:00etan: Dantza-emanaldia: Node konpainiaren "Emakumeak" ikuskizuna (18 min.) eta Uikan Dantza konpainiaren "Gizakia" ikuskizuna (20 min.).

20an, ostirala, 22:00etan: Zinea aire zabalean: "Tess eta ni" filma, Steven Wouterlood-ena (2020). 84 min.

21ean, larunbata, 20:00etan: Bidasoa Folk Jaialdia.

26an, osteguna, 20:00etan: Antzerkia: "Les friquis" antzezlana, Niño Costrinirena. 50 min.

27an, ostirala, 22:00etan: Animazio-zinema aire zabalean.

28an, larunbata, 20:00etan: Elektropatxaranga Burrunbaren kontzertua.

Azkenik, agendan sartu da halaber Irun Hiria musika-bandak irailaren 7an (19:45) Junkaleko Andre Mariaren ohoretan emango duen kontzertua.

Felipe Cambón, idazlea:

“Nobelak idaztea maratoi batean parte hartzea bezala da”

Felipe Cambón idazleak “Dos mares” eleberria argitaratu du Martin Gaite Narratiba Saria lortu ostean. Honakoa ez da idazle irundarraren lehen liburua, izan ere, 2017. urtearen amaieran “Viento norte” izeneko eleberria argitaratu baitzuen. Egun Esteponan bizi den idazleak onartu duenez, narratiba sariak bere liburuaren zabalpen lanean asko lagundu dio.

Nola murgildu zinen literaturaren munduan?
Nik ikasketa zientifikoak egin nituen, izan ere, ingenieritza ikasketak egin nituen. Ikasketa horiek aukeratu nituen, batez ere, Gipuzkoako industria-ehuna aztertu nahirik. Unibertsitateko joan-etorrietan denbora libre asko nuenez irakurtzeko ohitura hartu nuen. Heldua nintzela iritsi zitzaidan literaturarekiko grina eta harrezkero zerbait idazteko gogoa izan dut beti. Kontakizun laburrak idazten hasi nintzen, ondoren eleberriak idazten jarraitzeko eta horrelaxe hasi nintzen.

Bitxi samarra da zientzietako irakaslea izanda liburu bat publikatzea, ezta?
Bai, beti kontraesan horren inguruko azalpenak eman behar ditut, jendeari atentzioa ematen baitio. Jendeak ez du ulertzen zergatik idazten ditudan eleberriak ingeniaria izanda. Hala ere, betidanik izan ditut oso gustoko zientziarekin zein letrekin lotutako gauzak. Arlo profesionalean zientzien alde egitea erabaki nuen, baina letrekin ere zeozer egin behar nuela erabaki nuen eta horregatik hasi nintzen idazteko zaletasuna garatzen.

Nola bururatu zitzaizun zure azken eleberria idaztea?
Azken liburua idazteko nire bizitzako bizipenak eta denbora luzez ozeanoaren beste aldean egin nuen bidaia nahastu ditut. Historian nire bizipen pertsonalak agertu arren, fikziozko pertsonaia bat sortu dut istorioa kontatzeko. Izan ere, nire buruarekiko oso desberdina den pertsonaia sortu dut.

Carmen Martín Gaite Narratiba Sariak eleberria argitaratzen lagundu dizu?
Bai, izan ere, honelako lehiaketetan parte hartzea nahiko konplikatua da, parte hartzaile asko izan ohi direlako. Horretaz gain, irabazlea aukeratzeko orduan faktore asko hartzen dira kontuan. Hainbeste parte-hartzaileren artean irabazlea zu zarela esateko deitzen dizutenean oso sorpresa handia hartzen duzu. Egia da sariak asko errazten duela argitalpena, banaketa eta publikoaren zein kritikoen aintzatespena lortzen.

Zure bigarren liburua izanik, alde handia nabaritu duzu lehen argitalpenarekin alderatuta?
“Viento norte” izeneko lehen eleberria argitaletxe txiki batekin kaleratu nuen, beraz, lehen eleberriaren banaketa txikiagoa izan zen. Bigarren liburuarekin, berriz, estatu mailan zabalpena errazagoa izan da. Horretaz gain, bigarren argitalpen honekin komunikabideek jaramon gehiago egin didate eta jasotako arreta guztiz bestelakoa izan da.

Bigarren nobela idazteko unean lagungarria izan zaizu lehen eleberriaren esperientzia?
Bai, lehen liburua ia modu autodidaktan idatzi nuen. Horren ostean, literaturaren munduan gehiago murgildu nintzen, arte guztiak bezala oso konplexua da eta aldagai asko ditu. Bigarren liburuaren diseinua landuagoa dago, bigarren liburuaren diseinua askoz sakonagoa da.

Epaimahaiak zure liburua irabazlea izateko ahobatez aukeratzeak ba al du esanahirik zuretzat?
Hasieran harridura handiz jaso nuen balorazioa. Epaimahaikideekin bideokonferentziaz hitz egiteko aukera izan nuen, eta literaturan nolabaiteko pisua duten pertsona batzuek aho batez aukeratu izana pozgarria da, aintzatespena bezalako zerbait da eta. Oso hunkigarria izan zen.

Zein neurritan baldintzatzen du pandemiak liburuaren argitalpena?
Sariaren emaitza 2020ko udan jakinarazi zen, eta argitalpena atzeratzen saiatu dira, baldintzak zertxobait hobeak izan arte. Azkenean 2021eko udaberrian argitaratu da, jendeak aurkezpenetara bertaratzeko aukera izan dezan eta dena errazagoa izan dadin. Gaur egungo baldintzak zailak badira ere, badirudi irakurketaren munduak bizirik irautea lortu duela eta jendeak lehen bezala irakurtzen jarraitu duela. Gauza batzuk zaildu badira ere, orokorrean, aurreikusitako guztia gutxi gorabehera egitea posible izan da.

Zure irakurleekin harreman zuzena izatea eskertzen duzu?
Bai, noski. Malagan aurkezpen presentziala egin nuen eta etxera egindako bisitaz baliatuta Hondarribian beste aurkezpen bat egin nuen. Idazle guztioi asko gustatzen zaigu irakurleekin topo egitea, haien adierazpenak konta diezazkiguten. Oso une garrantzitsua da, irakurleen balorazioa jasotzen duzulako, eta oso interesgarria da guretzat.

Erraza al da idazketa irakaskuntzarekin uztartzea?
Ez da lan erraza. Antolaketa handia eskatzenr du, eta pixkanaka helburuak lortzeko lan egin behar da. Nobelak idaztea maratoi batean parte hartzea bezala da, oso ordu luzeak eman behar zaizkio eta konstantzia handia behar da. Nahiko pertsona antolatua naizela esango nuke, eta pausoz pauso joanez gero, gauzak lor daitezkeela uste dut.

Zertan inspiratzen zara idazterakoan?
Nik uste dut idazlearen lana dela bizitzea tokatu zaion garaia deskribatzea. Hori da niri interesatzen zaidan literatura mota. Ondo ezagutzen ditudan gauzez hitz egitea gustatzen zait, zehatz eta sakon hitz egin ahal izateko. Horregatik, esperientzian oinarritzen naiz, fikzioa sakontasun bihurtzeko. Nahasketa horretan kalitate handiagoko gauzak ateratzen dira.

Etorkizunean beste libururen bat kaleratzeko asmoa duzu?
Etxean giltzapetuta egon ginen hilabeteak istorio berri bat diseinatzen hasteko baliatu nituen. Idazten hasi aurretik denbora asko ematen dut prozesu horretan, ondo dokumentatzeko eta antolatzeko. Idazten hasi aurretik dena ondo eskematizatzea gustatzen zait. Oraintxe bertan badut nik deitzen diodan moduan sedimentazio fasean dagoen istorio bat, geruzak noiz igoko zain dagoena. Idazten hasteko zain dago, baina ez dakit noiz.

Erromatarrak ere oporretan joaten ziren



Gutariko gehienok udako hilabete hauetan izaten ditugu oporrak, sarritan ikasturte amaierak lagunduta. Urtaro honetan eguraldi ona da nagusi eta egunak ere luzeagoak direnez, ohikoa da ditugun jaiegun hauek txangoak egiteko eta bidaiatzeko probestea. Ohitura ez da berria, Antzinatean oporretan joatea posible zuten erromatarrek ere hori egiten zutela adierazten baitigute garaiko iturri idatziek.

Antza, familia erromatar boteretsu asko landa eremuan zituzten villae-tara mugitzen ziren hiriak eskaini ezin zien lasaitasunaren eskean. Hala ere, aukera zutenek Campania eskualde italiarrean pasatzen zituzten egun batzuk, garai haietan hori baitzen atseden hartzeko helmuga turistiko desiragarriena. Enperadore ugarik, Octavio Augusto eta Tiberio tartean, oso gogoko zuten bertan denboraldi luzeak igarotzea Capriko irlan zituzten egoitzetan. Garai hartako hiritarrei Tarento, Abruzzo eta Lukanian topa zitezkeen basoetan paseatzea gustatzen zitzaien arren, berez erromatarrak ez ziren hagitz mendizaleak eta turistak erakartzen zituzten mendi bakarrak Olinpo eta Etna ziren.

Gaur egun bezala, kirol jarduerak ere aitzakia bikainak ziren batetik bestera bidaiatzeko. Guztietan esanguratsuenak Grezian ospatzen ziren panheleniar jokoak ziren eta haien artean Olinpiar Jokoak ziren bereziki turista gehien erakartzen zituztenak. Iturri idatzien arabera, exotiko eta historikotzat jotzen ziren eskualdeek arrakasta turistiko handia zuten, Erromako hiriak berak, Greziak eta Egiptok batez ere. Berez, hiri eta eskualde hauek oso barneratuak zeuden helmuga kultural gisa garaiko pentsamoldean. Horren adierazle da erromatar inperioko familia boteretsuetako semeak ikasketak osatzera Erromara edo Mediterraneo ekialdera, Atenasera esaterako, bidaltzeko ohitura.

Garai inperialean osasunarekin loturiko santutegi eta ur terapeutikodun zonaldetako egonaldiak ugaritu ziren, Greziako Asklepioren santutegian egiten zirenak kasu. Izaera erlijiosoko bidaiak ere ohikoak izan ziren Antzinaro osoan zehar eta helmuga guztien artean bisitari gehien jaso zituztenak Delfoseko Orakulua, Cadizeko Herkulesen tenplua eta aurretik aipaturiko Olinpo mendia ditugu. Kristautasunaren indartzearekin batera egungo Palestinan kokatzen diren lurralde santuetarako lehendabiziko erromesaldiak hasi ziren K.o. IV. Mendean, eta urte haietan eta ondorengoetan erromatar inperioan zehar kristauek egin zituzten jarduerek, jasan zituzten martirioek eta erlikia santuen sakabanatzeak gurtzagune eta erromesgune berrien agerpena ekarri zuten. Baskoniako eskualdean ez da adibide goiztiarrik falta, izan ere Prudentzio poeta kristauaren arabera, 298. urtean Calahorrako hiri baskoian elkarrekin eraildako eta santututako Emeterio eta Celedonioren hilobiak erromes ugari erakarri zituen.

Jakina denez, erromatar garaiko bidaia hauek lurrez eta itsasoz egin zitezkeen, baina ez zegoen denon eskura ahalik eta modu azkarrenean eta erosoenean leku batetik bestera mugitzea. Erromatarrek garraiobideendako azpiegiturak Augusto enperadorearen agintaldiaz geroztik dezente garatu zituzten arren, kontuan izan behar da antolaturiko garraio azpiegituretako zenbait soldaduek edota enperadorearen baimena zuten funtzionarioek soilik erabili zitzaketela, hala nola, doako zerbitzuak, bidean topatu zitezkeen ostatuak, zaldi aldaketarako edota gurdi tailerren guneak kasu.

Gainontzeko hiritarrentzat ez zegoen gaur egun bezala jatorri bat helmuga batekin lotzen zituen nolabaiteko garraiobide linea erregularrik. Hori dela eta, norberak bere baliabide ekonomikoen eta izan zitzakeen kontaktuen arabera bidaiatzen zuen, sarritan ibilbide bera edo antzekoa egiten zuten merkatariekin negoziatuz beraien gurdi edo itsasontzietara igo ahal izateko. Itsasozko garraioa zen denetan merkeena, baina urteko zenbait hilabeteetan eguraldiaren ondorioz nabigazioa ez zen oso gomendagarria. Lurrean ere, elurteek edota uholdeek galtzadak erabiltzea galaraz zezaketen. Ordea, eguraldia ez zen bidaia zapuztu zezakeen arrisku bakarra, bestelako ezustekoak ere izaten baitziren, izurriteak edo pizti basatien, bidelapurren eta piraten erasoak adibidez.

Denboraldi baterako bigarren etxebizitzetara erretiratzen ziren boteretsu askok eskutitzen bitartez lortzen zuten urrun zeuden adiskideekin harreman estuari eustea. Posta zerbitzua ordea, afera ofizialetara zegoen mugaturik eta partikularrek beren gutunak sistema tradizionalaren bitartez iritsarazi behar zituzten: esklabo edo morroi bat eskutitzarekin bidaliz edo norabide horretan zihoan norbaiti hartzaileari gutuna emateko eskatuz.

Jokin Lanz

Teresa Errandonea atletak Tokioko olinpiar jokoetan parte hartuko du

Teresa Errandoneak 2021an Tokion jokatuko diren olinpiar jokoetan parte hartuko du. Ekainaren 30ean sailkatu zen Errandonea olinpiar jokoetan parte hartzeko, Espainiako Txapelketa Absolutua irabazi ostean. Guztira, 56 atleta espainiarrek parte hartuko dute uztailaren 23tik abuztuaren 8ra Japonian egingo diren olinpiar jokoetan. Errandoneak uztailaren 31ko goizaldean parte hartuko du 110 metro hesidunetan.

Atleta irundarra Espainiako Txapelketa Absolutuaren aurretik 33. postuan zegoen joko olinpikoetan joatekoak ziren hesidun lasterketetako 40. kirolarien artean. Izan ere, Espainiako txapelketa absolutuan Tokioko sailkapena lortzeko puntu garrantzitsuak zituen jokoan irundarrak. Aurreikuspenekin hutsik egin gabe, Teresa Errandoneak Espainiako txapeldun titulua lortu zuen.

Estatu mailako txapelketan garaipena lortu arren, rankinga eguneratu arte itxaron behar izan zuen atleta irundarrak Tokioko jokoetarako pasea lortu ote zuen jakiteko. Ekainaren 30eko goizean sailkapena eguneratu ondoren, Teresa Errandonearen izena zerrendako 29. postuan kokatu zen, beraz, Tokiorako sailkapena baieztatzea lortu zuen. Era horretan, Errandonearentzat kirolari askoren ametsa egia bihurtu zen: olinpiar jokoetan parte hartzeko aukera izatea.

Espainiako Txapelketa

Deskalifikazio batengatik pista estalian tituluarengatik borrokatzeko aukera galdu ondoren, Espainiako Txapelketa Absolutuan titulu nazionala irabaztea lortu zuen Teresa Errandoneak. Irundarrak ideiak oso argi zituen Getafen jokatutako txapelketaren aurretik: Espainiako Txapelketa irabaztea eta txapelketan ahalik eta marka onena lortzea.

Finalerdietan irundarrak bere asmoak eta sasoi ona argi utzi zituen, seriea 13,18 segundoko denborarekin irabazi ostean. Finala oso estua izatea espero zen. Bertan, Caridad Jerez kalitate eta esperientzia oso handiko atletaren eta Xenia Benach Espainiako pista estaliko txapelduna eta atleta oso azkarraren aurka lehiatu zen irundarra. Hala ere, Teresak zalantza guztiak uxatu zituen. Irteera bikain baten ostean, eta haizea kontra izan arren (-2.1), Errandonea lasterketako liderra izan zen hasieratik amaierara arte eta Espainiako txapelduna izan zen 13,07 segundoko denborarekin.

Espainiako Txapelketa Absolutuan garaipena lortu ostean, Teresa Errandoneak sare sozialen bitartez zabaldutako mezuan bere poztasunaren berri eman du. Atleta irundarrak adierazi duenez, "oso pozik nago titulu hau lortu ahal izan dudalako eta aurten titulua irabazteak duen garrantziarengatik". Behin Tokioko olinpiar jokoetan parte-hartzeko aukera baieztatuta, Errandoneak sare sozialetan zera adierazi du: "zenbat kostatu den eta azkenean lortu dugu. Tokio gure zain daukagu".

Atletismoari eskainitako bizitza

Teresa Errandonea 10 urterekin murgildu zen lehen aldiz atletismoaren munduan. Bere lagunekin alebin mailan hasi zen Eskola Kirola programari esker atletismoa gertutik ezagutu ostean. Kirolean lehen pausu horiek Susana Ferreira eta Ibon Muñoz entrenatzaileen gidaritzapean eman zituen. Ordutik, bere bizitza atletismoarekin lotuta egon da eta Ibon Muñozek eta orain Ramon Ciden entrenatzaileek atleta irundarraren bilakaera gertutik jarraitu dute.

Gaur egun arte, Teresa Errandoneak 12 aldiz lortu du Espainiako txapeldun titulua, horietako bi luzera jauzian. Horretaz gain, Espainiako bi errekor lortu ditu eta horietako bat oraindik indarrean dago. Gainera, Gipuzkoako eta Euskadiko 100 metroko errekorra eta 60 metro hesidunetako errekorrak ditu. Errandonea 2014. urteaz geroztik nazioarteko atleta da. Ibilbide hori guztia hasieratik gaur egun arte bere kluba izan den Bidasoa Atletiko Taldean egin du.

Bidasoa Atletiko Taldeak Teresa Errandonearen azken lorpena baieztatu bezain laster jakinarazi du klubaren harrotasuna. Bidasoa Alteako Taldeak partekatutako adierazpenean irakur daitekeenez, jada Teresa klubeko atleta esanguratsuenetako bat bazen, orain, are gehiago, klubaren filosofiaren isla bihurtu da zuzen-zuzenean. Era honetan, Bidasoko atletismo taldeak Teresa Errandonea olinpiar jokoetan parte hartzeko aukerarengatik zoriondu du, merezitako lorpena dela baieztatuz.

"Zenbat kostatu den eta azkenean lortu dugu. Tokio gure zain daukagu"

"Oso pozik nago titulu hau lortu ahal izan dudalako eta aurten titulua irabazteak duen garrantziarengatik"

caser residencial
INFORMA ZAITEZ!
Adineko pertsonentzako eguneko zentroak
Egun osoz edo egun erdiz
Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak
Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

Leka Eneak klubeko kirolarien lorpenen errepasoa egin du denboraldi amaieran

Leka Eneak klubeko kirolarien lorpenen errepasoa egin du denboraldiaren amaieran. Pandemiak eragindako ezustekoek baldintzatutako denboraldia izan bada ere, Irungo mahai-tenis klubeko kirolariek hainbat lorpen esanguratsu pilatu dituzte 2020/2021 denboraldian. Sergio Rodríguez Leka Eneako Zuzendaritza Batzordeko kideak, klubeko kirolarien konpainian, denboraldiko lorpen esanguratsuenak errepasatu ditu.

Sergio Rodríguezek azaldu duenez, "Leka Enearen denboraldi onenetariko bat izan dela esango nuke". Izan ere, klubak ia kategoria guztietan lehiatzea lortu du eta, gainera, kirolariek oso emaitza onak eskuratu dituzte. Hala ere, pandemiak goitik behera baldintzatutako denboraldia izan denez, murriztapen neurriak nagusitu dira txapelketa zein entrenamenduetan.

Elite mailako kirolarietatik hasita, Gizonezkoen Super Dibisioan hiru jokalari nazionalekin batera jokatu dute Leka Eneako kirolariek, hau da, atzerriko kirolariak nagusitu ohi diren mailan. Talde horrek ligako 4. postuan sailkatzea lortzeaz gainera, datorren urtean Europako Txapelketa jokatzeko pasea lortu du. Super Dibisioko Emakumeentzat, aldiz, oso urte konplikatua izan da. Izan ere, Covid-19ak eragin handia izan du, hainbat kutsatze gertatu baitira. Ondorioz, Super Dibisioko taldea harrobiko neskekin osatu behar izan dute. Hala ere, azken minutuan kategoria salbatzea eta bertan irautea lortu dute.

Gizonezkoen Ohorezko Dibisioan Leka Eneako hiru mutilek oso denboraldi ona egin dute. Galiziara joan ziren igoera-fasea jokatzeko aukera ematen zuen txapelketa bat jokatzera eta hirugarren postua lortu zuten. Lehen Nazional Femeninoan, berriz, taldeko txapeldunak izan ziren. Antequeran igoera-fasea jokatu zuten eta datorren denboraldian Emakumezkoen Ohorezko Dibisiora igoko dira.

Bigarren Nazionalean taldeko bigarren postuan amaitu zuten eta kategoriaz igotzeko playoff-etan sartu ziren, baina Lehenengo Nazionalean jada talde bat badutenez, mailaz igotzeko aukera galdu dute. Euskal Liga eta Txapelketetan lorpen ugari izan dira ere. Bertan jokatzen ziren hiru ligetan, hau da, Bigarren Euskaldunean, Lehenengo Euskaldunean eta Ohorezko Dibisio Euskaldunean hiru taldeek mailaz igotzea lortu dute. Hortaz, liga mailan ere oso denboraldi arrakastatsua izan da.

"Leka Enearen denboraldi onenetariko bat izan dela esango nuke"

"Datorren denboraldian uste dut Leka Enea izango garela maila nazionaleko kategoria guztietan taldeak izango dituen klub bakarra"

Pandemiaren eragina

Sergio Rodríguez klubeko teknikariak adierazi duenez, Leka Eneak denboraldian zehar pandemiaren murriztapen neurrietara egokitu behar izan du. Hala ere, gutxienez klubaren instalakuntza aproposei esker entrenatzen jarraitzeko aukera izatea asko eskertu dute. Sonia Etxezarreta Teknifikazio Zentroko solairuetan tenis mahaien kopurua murriztu egin behar izan dute eta entrenamendu taldeak txikitu dira.

Espainiako Txapelketarekin denboraldia amaitutzat eman ostean, uztaila atseden hartzeko aprobetxatuko dute. Abuztuan denboraldi berriari ekingo dio Leka Enea klubak eta kirolari gazte berriak mahai-tenisera erakartzeko ikastaroak presatu dituztela baieztatu du Rodríguez teknikariak. Horretaz gain, Sergio Rodríguezen hitzetan, "datorren denboraldian uste dut Leka Enea izango garela maila nazionaleko kategoria guztietan taldeak izango dituen klub bakarra". Beraz, datorren urteko arrakasten esperoan, aurtengo denboraldian zehar lortutakoak errepasatzeko une aproposa izan daiteke.

Iker Martinez eta Mikel Angulo

Leka Eneko Iker Martinezek eta Mikel Angulok elkarrekin jokatu dute Gizonezkoen Ohorezko Dibisioan. Taldekako txapelketa irabazteaz gainera, igoera-fasean hirugarren postua lortu dute, mailaz igotzeko aukerarik izan ez duten arren. Espainiako Txapelketan taldeka final-laurdenetara iristea lortu zuten. Iker Martinez gainera banakako txapelketako finaleraino iritsi zen, baina txapeldunorde postuarekin konformatu behar izan zuen 4-2 estu batengatik galdu ostean eta ranking nazionaleko jubenilen bigarren postuan dago orain. Mikel Angulok, aldiz, ez zuen bere maila osoa erakutsi banakako txapelketetan, lesio baten ondorioz. Datorren urtean gazteen kategoriak bere horretan jarraitzea espero du, taldeko handienak izateak ematen dien abantaila aprobetxatu eta emaitza onak lortzeko.

Beñat García eta Eneko Rodríguez

Beñat García aurten Bigarren Nazionalean lehiatu da eta taldekako txapelketa irabazi dute. Banakako txapelketetan, berriz, Espainiako Top 8a jokatzea lortu du eta Espainiako Txapelketan final-laurdenetan kanporatu zutenez, orain bere kategorian Espainiako 7. onena da. Eneko Rodríguezek, berriz, Ohorezko Euskal Dibisioan jokatu du eta taldeka kategoria horretan nagusitu dira. Gainera, Euskadi eta Gipuzkoako Txapelketak irabazi ditu. Espainiako Taldeko Txapelketarako Leka Enean taldetik osatzeko aukerarik izan ez zuenez, CN Sabadell taldeak fitxatu zuen eta alebin kategoria irabaztea lortu dute. Infantil mutilen kategorian, berriz, final-laurdenetaraino iritsi ziren, baina Burgoseko taldeak txapelketatik kanporatu zituen.

Maitane Zuazua eta Amaia Angulo

Maitane Zuazuak eta Amaia Angulok talde berean jokatu dute 2020/2021 denboraldian. Horrela, Lehen Nazionalean jokatu eta bertan garaipena lortu dute talde gisa. Antequeran jokatutako igoera-fasean Jaengo taldearen aurka galdu zuten arren, datorren urtean Ohorezko Dibisioa jokatuko dute sailkatutako talde batek huts egin ostean eta maila berri horri eustea izango da neska irundarren helburua.

Nesken taldeko jokalaria izateaz gainera, Amaia Angulo amaitu berri den denboraldian Leka Enea klubeko sare sozialak kudeatzeaz arduratu da. Amaia Anguloren lana ezinbestekoa izan da, zuzeneko ikuslerik gabeko urte honetan txapelketetako kronika, emaitza eta argazkiei zabalpena emateko. Era horretan, mahai-tenisa ezagutarazi eta Leka Enea klubari handitzen laguntzeko bere aletxoa jarri nahi izan duela azaldu du Amaia Angulok.

Aurrekontu Irekiak 2021

Denona, erabakia. Denona, etorkizuna.

GIPUZKOAK BADU ETORKIZUNA

AUKERATU GIPUZKOAREN ETORKIZUNA ERAIKITZEKO PROIEKTUAK

Herritarren proposamen ugari jaso ditugu eta proiektu bihurtu ditugu. Aukera ditzagun gure lurraldearentzat onuragarrienak direnak.

Proiektuen bozketa:
2021eko ekainaren 30etik uztailaren 25era.

PARTE HARTU
gipuzkoa.eus/partaidetza

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

TOKI ALAI HH

Denbora-pasak

7 hitz: Izozki zaporeak

V	E	B	J	P	J	H	V	N	J	R	Z	V	H
D	K	F	T	J	X	A	K	H	A	Y	M	A	U
Z	S	E	C	F	S	S	L	I	M	O	I	S	R
E	M	X	S	A	K	D	G	B	F	L	B	P	H
W	A	T	X	O	K	O	L	A	T	E	A	R	K
N	R	I	J	T	R	I	F	P	M	W	N	K	A
A	R	R	O	S	J	Z	B	Y	X	O	I	B	F
A	U	Z	G	X	U	B	Q	I	S	M	L	F	E
M	B	N	U	X	U	A	E	H	M	B	L	T	U
G	I	L	R	H	N	I	M	Y	V	U	A	G	Z
P	W	J	T	T	W	Q	Y	N	M	E	F	D	M
C	S	E	G	W	L	V	L	O	L	C	M	W	X
A	C	O	G	B	R	F	F	N	G	N	X	W	U
Z	J	K	V	P	T	B	C	X	Y	L	N	N	A

Txokolate, jogurt, hur, limoi, marrubi, banilla, kafe.

		2				3		
	9		4		6			
		8			3		2	
			3			4		
6		9		7			8	3
		3		4		7		
	5		2	6			3	
2			5	3	1	9		
8						2	5	

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Neskatxa batek zuen nobiyua

Neskatxa batek zuen nobiyua
eta eintziren aserratu,
joan nai zuen pasiatzera
eta tristura biotza.

Urrungo erromeriya
izantzen Tolosa,
usai ona arittuta
sugurraren poza,
neri kutxaria ta
besteri arroza.

Orrekin esan nahi du mutilla beste neskatxa batekin joantzela eta ikusi zuela lengo nobiya, eta geldittu zela proetxu gabe.

Irungo Kateako S.R.A. andereari jasoa (1959-VIII-10). Amari ikasi zizkion bertsoak. (El Bidasoa, 1959-XI-7)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

SAN VICENTE DE PAUL LH6

Hizkuntza autobiografia

Nire amona Irunen jaio zen eta euskaraz hitz egiten zuen, aitona, ordea, Abilakoa zen eta gaztelera hitz egiten zuen. Amonak euskaraz bakarrik hitz egiten zuen etxean eta aitona ezagutzean gaztelera ikasi zuen. 4 seme-alaba izan zituzten eta bik bakarrik hitz egiten dute euskara: osabak eta nire amak.

Nire ama Hondarribiko San Jose ikastetxera joan zen ikastera eta A ereduan ikasi zuen, aita ,berriz, Iruneko ikastetxe batera joan zen. Aitak nahiko ulertzen du euskara baina, hitz egiteaz ideiarik ez.

Ni amari esker nahiko ondo moldatzen naiz euskararekin, eta nire euskara maila hobetzeko familia- barnetegira joaten gara urtero, abuztuan. Oso ondo pasatzen dut eta lagun mordo bat egiten ditut urtero giro euskaldun batean. Hori bai altxorra dela! Gainera ama oso konprometitua dago euskararekin eta ekintza pilo bat antolatzen ditu urtean zehar, bai helduentzat, baita haurrentzat (tailerrak, jolasak, klaseak...) ere.Orain buruz behera dabil euskaraldiaren antolakuntzarekin.

Orain dela bi urte, nik ere aukera izan nuen euskaraldiaren "antolakuntzan" parte hartzeko , hori bai ,maskota bezala. Nire anaiak eta biok ahobizi eta belarriprest panpinak jantzi genituen izena emateko kanpainan. Zer ondo pasa genuen larunbat hartan!

Etorkizunean ama izatea gustatuko litzaidake eta nire seme-alabei euskaraz hitz egitea.

Julene Gómez LH 6.B

Maitena Paillet, biolinista:

"Orkestra handietan jo ahal izatea da nire ametsa"

Maitena Paillet Euskadiko Ikasleen Orkestran (EIO) bakarlari gisa parte hartzera gonbidatu dute. Irundarrak irailetik aurrera Bruselako Royal Kontserbatorioan ikasiko du Europako biolin-irakasle ospetsuenetako betekin. Irungo biolin jotzaileak musikarekin zerikusia duten bere etorkizuneko planak zeintzuk diren azaldu du.

Irungo kontserbatorioan elkartu gara, hemen hasi baitzen musikarekin duzun harremana. Nola gogoratzen dituzu hasierako urte haiek?
Egia esan, musikarekin dudan harremana jaio nintzenean hasi zen. Nire ama irakaslea zen kontserbatorio honetan eta nire nebak hona etortzen ziren ikastera. Sei urte nituenean, tira, hobeto esanda, 6 urte bete aurretik, bertan izena eman zidaten eskolak jasotzen hasteko, eta gogoan dut asko gustatzen zitzaidala etortzea.

Instrumentu bat aukeratzeko orduan, zergatik aukeratu zenuen biolina?
Oso txikia nintzen gurasoen lagun batzuen etxera oporegun batzuk pasatzera joan ginenean. Bere semeetako batek biolina zuen pieza bat interpretatu zidan, eta soinu hark harritu egin ninduen. Uste dut orduantxe erabaki nuela biolina jotzen ikasi nahi nuela. Hala ere, akordeoiarekin gainditu gabeko ikasgai bat dudala esan behar dut, eta 18 urte betetzen ditudanean bat oparitzeko tematzen ari naiz.

Zure azken lorpenetako batean EIOrekin bakarlari gisa jotzeko deitu dizute. Zer suposatzen du horrek zuretzat?
Euskadiko Ikasleen Orkestrarekin bakarlari gisa jotzea egia bihurtutako ametsa da. Aukera horri esker musikari kide batzuez inguratuta egoteko aukera izango dut. Luxua da irakatsi eta zuzenduko gaituzten profesionalez inguratuta egotea.

EIOn onartua izatea zerbait berezia bada, uste dut gainera bakarlari gisa onartua izatea are bereziagoa dela, ezta?
Bai, zirraragarria da. Ilusio handia egiten dit Bilbon, Gasteizen eta Donostian EIOrekin jotzeak.

Uda honetako kontzertuak prestatzeko entseatzen hasi zinenean?
Orkestra Eibarren bilduko da entseguak egiteko. Entseguak ekainaren amaieran hasi ziren, eta nik ekainaren 29an izan nuen lehen entsegu bateratua.

EIOrekin batera, kontzertu asko izango dituzu uda honetan?
EIOrekin kontzertuak amaitu ondoren, astebeteko atsedena hartuko dut, eta, ondoren, uda 15 eguneko online ikastaro batekin lotuko dut, non bi kontzertu ditudan. Gero, Belgikara noa, han bakarlari bezala bestei bi kontzertu ditut eta beste bat ganbera-musikakoa.

Lehiaketei dagokienez, asko izan dira orain arte lortu dituzun sariak. Zein da zuretzat bereziena?
Zaila da aukeratzea. Oso ondo joan zait parte hartu dudan lehiaketetan, eta denek egin didate ilusioa bere garaian. Poloniako Telemann lehiaketako finalista izatea sorpresa polita izan zen niretzat. Lehen saria XXX. European Music Competition, Turinen. Gainera, beste sari batzuk ere lortu ditut, hala nola 15 urterekin Euskadiko Musikari Gazteen Lehiaketan 19 urtetik beherako kategorian lehen saria edo Musikeneko sari berezia, besteak beste. Sari horiek guztiek asko motibatu naute lanean jarraitzeko.

Uda ostean, Bruselako Royal Kontserbatoriora joaten zara ikastera. Erraza izan al da sarbidea lortzea?
Erraza? Ez dut uste hautagai asko zeudelako eta gazteenetakoa nintzelako, baina lan asko egin dut eta ilusio handiz lortu dut.

Gainera, Europako biolin irakasle ospetsuenetako batekin ikasteko aukera izango duzu. Hori aukera handia da zuretzat?
Bai, Philippe Graffin ikastaro batean ezagutu nuen duela hiru urte, eta asko gustatu zitzaidan ordutik, ikastaro eta master klaseetan jarraitzen saiatu naiz. Orain bere ikaslea izatea ahalik eta gehien aprobetxatzea espero dudan luxu bat da.

Erraza izan al da zure ikasketak eta orain arteko musika-prestakuntza uztartzea?
Bigarren hezkuntza Donibane Lohizunen egin nuen eta oso zaila izan zen. Batxilergoa, berriz, Irungo La Sallen egin nuen, eta, egia esan, oso eskertuta nago, aurten kontserbatorioko probetara aurkeztu ahal izateko gauzak asko erraztu dizkidatelako. Orain amaitu ditut Batxilergoa eta selektibitatea eta etapa berri bat hasiko dut.

Zein dira etorkizunera begira dituzun asmoak?
Oraingoz, Bruselako ikasketetan jarri nahi dut arreta, eta gero ikusiko dugu zer gertatzen den. Jakina, orkestra handietan jo ahal izatea da nire ametsa. Elkarrizketa amaitu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiet Irungo Kontserbatorioari eta bertako irakasle guztiei, bereziki Raffaela Acellari, bera gabe orain ez nintzatekeelako hemen egongo. Ez dut ahaztu nahi Kristoffer Dolatko ere, bere baldintzarik gabeko laguntzagatik.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

GazteARTEan 2021 Beka

Haurren, Nerabeen eta Gazteen esparruko ikerketa beka "GazteARTEan 2021"

Irungo Udaleko gazteria Arloaren xedea da deialdi honetaz baliatzea tokiko esparruan haurrekin, nerabeekin eta gazteekin lotutako ikerketa proiektuen grapena sustatzeko.

Baldintzak:
- Banakako edo lantaldean.
- Unibertsitate gradua edo lizentziatura.
- 35 urte baino gutxiago.

Zenbatekoa: 8.000,00 €.

Epea: 2021eko uztailaren 19ra arte.

2.400 beketako deialdia unibertsitate ikasleentzat

Unibertsitate mailako ikasleek unibertsitateetako departamentuetan laguntzeko 2.400 beka emateko deialdia argitaratu da. Laguntza lana ikasketekin bateragarria izango da, eta beken helburua da ikasleak egiten ari diren ikasketen inguruko ikerketa lanetan hastea eta haien lan edo ikerketa mundurako orientabidea ematea.

Epea: irailak 30.

Lan eskaintza: Animazio Soziokulturaleko Animatzailea

Animazio Soziokulturaleko Teknikari bat behar da.

Lekua: Caser Residencial Betharram (Hondarribia).

Eskakizunak:
- Animazio Soziokulturaleko goi mailako teknikari titulua.

- Urtebeteko esperientzia - Frantses eta euskara maila handia (ezinbestekoa).

Baloratuko direnak:
- Adinekoekin eta dementzia duten pertsonekin lan egiten esperientzia izatea.

- Estimulazio eta dementzia programetan parte hartu izana.

Eskaintza honetarako izena emateko esteka Irungo iGazte webgunean topatuko duzu.

Gautxori zerbitzua, martxan berriro

Gautxori zerbitzua martxan da berriro, behin garraio zerbitzu publikoa 03:00etara arte emateko aukera izanda. Hasiera batean, araudia aldatzen ez den artean, larunbatetan eta jai bezperetan emango da zerbitzua, eta azken autobusa 02:30ean aterako da. Autobusak Fermín Calbetón kaletik abiatuko dira.

Behobiako irteerak: 23:00, 00:00, 01:00, 02:00.

Kateako irteerak: 23:30, 00:30, 1:30, 2:30.

Konekta Uda

Konekta zerbitzuak uztailean hainbat ekintza antolatuko ditu.

– Uztailaren 16an maitasun-harremanei buruzko "scape room" bat antolatuko dute eta jarduera doakoa izango da. Jarduera 16 eta 25 urte arteko gazteentzat pentsatuta dago.

– Uztailaren 24an 18 eta 25 urte arteko gazteek Kanoraft eta Bertiz abentura parkeko irteeran parte hartzeko aukera izango dute, 21,75 euroren truke.

– Uztailaren 30ean irteera egingo da Sallent de Gallegoko Multiabentura parkera. 15 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduera izango da eta 21,75 euroko prezioa izango du.

Interesdunek Konekta zerbitzuak proposatutako ekintzei buruzko informazio gehiago konekta@irun.org posta elektronikora idatziz edo 656 794 372 telefono-zenbakira deituz aurkituko dute.

Udagazte

12-17 urte bitarte badituzu... uztaileko Udagazte zuretzako da!
Ondo begiratu ekintza bakoitzaren ordutegia eta elkartzegunea, ez baita egunero berdina izango!

Gogoratu UdaGazteko ekintzetan parte hartzeko baimen orria betetzea beharrezkoa izango dela.

Oraindik plaza batzuk geratzen dira jarduera hauetarako:

– Uztailak 14 eta 15: Skate taulak birziklatzeko tailerra
– Uztailak 16: Hondarribiko Amuitzera irteera
– Uztailak 21: Oilakinetako putzuak
– Uztailak 26: Udako jolasak
– Uztailak 29: Agurra



Uztailak

15

Antzerkia

Zer: Zanguango Antzerkia konpainiak "Aqui va a pasar algo" antzezlana eskainiko du.

Non: Junkal plazatxoa.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

Iraupena: 75 minutu.

16

Musika

Zer: Iñaki Dieguez Hirukotearen kontzertua.

Non: Junkal plazatxoa.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

17

Gira Bira

Zer: Gira Bira programaren barruan etxeko txikientzat antolatutako antzerki eta dantza emanaldia.

Non: Alai Txoko parkean.

Ordutegia:

· 18:00: Magia tailerra, aldez aurretik izena emanda.

· 19:30: Magia ikuskizuna Ibon del Olmo.

· 20:15: Circo Choscoren eskutik "Indartsuak".

Hizkuntza: Elebitan.

23

Kontzertua

Zer: Travellin´ Brothers taldearen kontzertua.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

24

Zinema

Zer: Guy Ritchieren Aladdin filmaren emankizuna.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 22:00etan.

Hizkuntza: Gazteleniaz.

Iraupena: 128 minutu.

29

Bakarrizketa

Zer: Oscar Terol bakarrizketariak "¡Por comentarlo!" ikuskizunean aktualitatearen errepasoa egingo du umore ukituarekin.

Non: Junkal plazatxoa.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

Denbora-pasen emaitzak



4	6	2	8	1	7	3	9	5
3	9	5	4	2	6	8	7	1
7	1	8	9	5	3	6	2	4
1	2	7	3	8	5	4	6	9
6	4	9	1	7	2	5	8	3
5	8	3	6	4	9	7	1	2
9	5	4	2	6	8	1	3	7
2	7	6	5	3	1	9	4	8
8	3	1	7	9	4	2	5	6

HAMAIKA

www.hamaika.com

San Marcos Plaza 1,
Hondarribia

(+34) 943 64 64 12
hamaikalan@gmail.com